


**egin**



# Vienen, están...

Lluís Llach dator. Mikel Laboa dago. Biak datoz eta biak daude, bi herri, bi izaera, eta bi borrokaren hildo bizian. Basteizko hiketak eta arranoen atzaparrak, Itacaruntz egunero egiten den ibilaldi neketsua eta ama lanez itota hiltzen zaizunean. Llach-Laboa datoz-daude sorketa lan neketsu baina jorian. Gizartearen dinamika sorketaren dinamikarekin bat egiten. Ez da bat besteren morroi, ez da bestea bataren gatibu. Bide asketatik, hildoak horretarako aski gai eskaintzen baitu.

Eta hildo beretik sortu zuen Euskal Herriak EGIN. Duela hilabete batzu, proiektu interesgarri bat besterik ez zen batzuentzat EGIN. Iniziatiba sineskaitz bat besteentzat. Zuri esker, beharrik larrienean EGIN posible zela zela sinetsi duzun horri esker, proiektu hura errealitate bihurtu duzu zuk.

Errezkadan, eta arazoak arazo, bere helburuak betetzen ari de EGIN. Baina egunkari hau ez da anonimoa, ez da inork ezagutzen ez dugun mamutzar baten atzaparretan dagoen tresna. EGIN zu zara, eta zu delako lagundu duzu.

Horrela, milaka partaideren eta laguntzaileren bidez EGIN posible bada, egunero kalera irtetetik aparte, beste modu batetan ere agertu nahi izan dugu kalera. Eskerrak emanaz. Lluís Llach eta Mikel Laboa hemen daude. EGIN ere badago.

Azkenik, delako dago eta dagoelako da gure herria ere, bide ziurretatik eramaten ahalegindu behar dugun gure herria.

Lluís Llach, Mikel Laboa, Egin, Euskal Herria datoz, daude, dira.

# Lluís Llach


Lluís Llach nasce el año 1948 en Verges (Bajo Ampurdán). Estudia el Bachillerato y se inicia en solfeo y piano. Más tarde se traslada a Barcelona para estudiar Ciencias Económicas, donde conoce a los componentes de lo que se llama "Nova Canço". En el año 1967 se une al grupo "Els setze jutges", y comienza a cantar por todos los escenarios de Catalunya.

El año 1969 el Palau de la Música de Barcelona le brinda la ocasión, en una actuación en solitario, del éxito extraordinario y de que Lluís Llach se abra paso en el rico escenario de la cultura y canción catalana.

Cuba, Méjico, Francia, Venezuela... las actuaciones por el extranjero aumentan, mientras aumentan las dificultades

para sus actuaciones en el Estado español. Multas y prohibiciones tienen adecuada respuesta en una preparación seria y profunda del Llach de "L'estaca", "Campanadas a morts" o "Viatge a Itaca", y en una afluencia masiva de espectadores en los pocos recitales permitidos. En Canet, a pesar de la lluvia, y a pesar del vacío que el poder intenta crear en torno a Llach, consigue reunir a más de 60.000 personas que corean al unísono:

Obriu-me el ventre  
pel seu repós,  
dels meus jardins  
porteu les millors flors.



# Mikel Laboa

Mikel Laboa, Donostiako Parte Zaharrean jaio zen, 1934eko maiatzaren 15ean. Jatorriz, Pasai Donibanekoa zen bera mundura etortzean ezagutu zuen lehenengo magala. Zaragozako hiria berriz, bere lehenengo kantu-totelen soinua jaso zuena, hantxe hasi baitzen euskal estudiante lagunek bultzata, Medikuntzako ikasketak bukatuxeak zituena garaian. Eta 1963an bere lehenengo diskoa kaleratzen da, Baionako Goiztiri etxeak argitaratuta. Garai hartakoxea da, zerbait lehentxeago aterea bada ere, Labegueriren lehen diskoa, Ipar Euskal Herrian. Urte berean, Bartzelonako "Setge Jutges" taldearekin topo egiten du, eta harremanetan jartzen berarekin. Eta geroago "Ez dok amairu" sentikariaren haize garratzetan (garratzetan ala xamurretan?) hegan egiteko aukera izango du. Hego berean zituen beste zenbait euskal txori (Xabier Lete, Lurdes Iriondo, Benito Lertxun-

di, J. A. Artze, Julen Lekuona, etab.). Urte batzuk ondoren, bigarren diskoa eskuratzen digu, Bartzelonan grabatua oraingo hau, eta Baionako Goiztiri etxearen babesean behin berriz.

Urte garrantzitsua benetan Mikel Laboarentzat 1974a: LP doble bat ateratzen du HERRI GOGOArekin batera. Eta, bidenabar, batera eta bestera ibiliko da bideak eta bide-txigorrak zehar eta Artze anaiak lagun kitarra besoetan eta "IKIMILIKILIKLIK" ikuskariaren nota garratzak ezarrian.

Lluís Llachekin, 1971n egin zuen lehenengo ekitaldia. Parisko Mutualité antzokian zen. Jaialdi hartan "bost herrik kantatzen zuten beren borroka": katalanek, bretoiek, okzitanoek, kortsoek eta euskaldunek alegia.